

EUSKAL UMOREA

J. San Martín

Umorearen orotariko aurpegiak

Badirudi euskal literaturgintzan umoreaz arduratzen hasiak garela. Bazen ordua. Umorea beharrezkoa baita hizkuntzaren ahulezien kontra, moteltasuna uxatzeko eta era beran irakurlegoa zein entzulegoa, buruz bizkortzeko.

Baina zer esan euskal umoreaz? Mutil landua dela euskal literaturan, esan beharrik ez.

1961eko abenduan gai horretaz mintzatu nintzen Donostian (ikus *Euskera*, VII, 1962, 304-307 orrialdeak). Umorea umorez agertzen ohartu nintzen donostiar hiritarren buru moteltasunaz. Izan ere, horien ondoan, nabarmen ageri zen Bizkai aldekoak irriz hasten zirenean zein aurpegi leloak jartzen zituzten donostiarrek, esaten nuenaren erdirik ulertzen ez zutelako. Aldiz, aitortu behar, joan zen mendearen bukaeran eta gure honen hasieran Donostian loratu zen antzerki-mugimenduan bazela orain nabari ez den umorea, eragile izan zen Marzelino Soroa beragandik hasita. Bestalde, gure egunotako Piarres Larzabalen antzerkietan ere nabari da umorerik aski.

Hitzaldi hartan esan nuen bezala, gure bertsolari zaharretan nabari da umorea. Gainera, umore berezia esango nuke, ziriketazko umorea, satira gisa, bertsoa edo bertsoak ideiaz taxuz girotuz baina ideia beraren muina azken unerako gordeaz. Garrantzitsua baita entzuleari ustegabeko ateraldia eskaintzea, entzule edo irakurle hartzailearen harridurak ateraldia bera gehiago indartzen laguntzen duenez.

Hein batean, egituraren funtsean teknika berbera erabiltzen da Plaentzia-Eibar inguruetan, nahiz hizkirimiri bat agertzen edo nahiz ipuia kontatzean. Hizkuntzaren erabilerak hitz egokiak gordeaz jokatu behar du.

Azken boladan, Kike Amonarriz eta Joxe Ramon Galarragak hizkirimiriak kasetez plazaratzean piztu du euskal umorearen alderako zio lehia. Kikek Felix Ibargutxiri agertu zion eritzia honako hau izan zen: “Alde nabarmena dago gaztelaniazko txisteetatik euskarazkoetara. Gaztelaniaz laburragoak dira txisteak, esplikazio eta prolegomeno gutxiagorekin” (Ikus *El Diario Vasco*, 1986eko abenduaren 3koa. “Zabalik” atalean). Egia esan, ni harri ta zuhur utzi ninduan, zeren ez bai naiz uste hortakoa. Kikek diona gerta liteke umore egiturak teknikaz beharrezko duen estetika erabiltzen ez bada. Kontalaria trebatu behar da; baina, aldiz, entzulegoa ere trebea behar du izan. Ahozko hizkuntza menderatu eta estetika zaindu ezker ez dut ikusten hizkuntzen arteko labor-luzezko arrazoirik.

Bestalde, baita ere esan beharra dago, euskal umorearen eremua oso zabala dela. Mugatu ezinezkoa. Kolorez ere, kolore guzietako ipuin eta ateraldiek dute beren lekua; baina, hori bai, umore jatorrean beharrezkoa da buru-bizkortasuna. Hori garbi gelditu bedi. Esatariak bere aldetik erakusten duen bizkortasun horrek behar bezala girotzen duela entzulearen adimena bera. Maila horietara iristen ez den umorea ez da umore egokia eta zakarkeriara bihurtuaz ganberrokerian erortzeko arriskua du.

Zer esanik ere ez, guzti horrek berez lortzen duela entzule edo irakurlearenganako eragin pizgarria, euskarari hain beharrezko zaion literatura eta komunikabideen erabilerarako. Umore gutidun hizkuntza motz gelditzen bai da.

Umorea umorez

Bai, umorea umorez. Arlotekeriari gabe, buru bizkortasunez baina ez ordea buru arinez.

Handik eta hemendik galdeak iristen zaizkit euskal umoreaz argitasun eske. Baina, umoreak berak, berez, argitasuna du. Beraz, zelan eman nezake berez duen argitasunetik kanporakorik? Buruz motelak direnei bakarrik gogoratzen zaie holakorik. Eta moteltasunaren aurka betor umorea.

Fede ugari eta ekintzak urri agertu genezazke teoriazko estudioak barrena. Hori, mahaiean eseri eta menu-gutunari begira eta berbegira denbora eman eta platera hutsik edukitzea bezala da.

Bertsolari onari ez dago umorea zer den erakutsi beharrik, Pernando Amezketarragandik Txirritagana arte ba zen besterik tarte, inork nahi balu har parte. Hein batean oinordeko ziren Uztapide, Mattin, Xalbador; eta gure egunotan, besteak beste, Lazkao-txiki, Mañukorta,... (punto baino puntadak hobe; bada-ezpada).

Horietan nabari den elkarrizketa sartzeko modua, estiloa, esateko era; bertsoa taxuz osatuala ideak girotu, pizkarria kargatu eta azkenean ziria sartu. Hori da egitura.

Baina, Plazentzia-Eibar inguruetan zer moduz? A ! Han bertan adinekoei adi.

Koloreak? Ortzadarrak baino gehiago. Beltzetik nahi duzula? Ba, har beltzetik:

- Gauza bat nahi nuke jakin.
- Zer?
- Non hil behar naizen.
- Zertako?
- Haraxe ez joateko.

Edo, gaixorik zegoena bisitatzera joan zenean sortutako elkarrizketa "leun" hura:

- Ez daukat itxura txarrik.
- Ba, oso gaizki aurkitzen diat nere burua.
- Ba, nik, egia esan, hagoen baino gaizkiago aurkitzea uste nian.
- Gaizkiago?
- Oraindik bi hankok heurenkin dituk behintzat.

— Zer?

— Hara ba, Don Jose medikuak esan didanez, hanka bata kanposantuan heukala ta...

Beste hura ere, ohean larri, etsipenez azken arnasestuz. Eta semeak alboko gelan azken erabakiak hartzen. Entierroa primerakoa, segundakoa ala terzerakoa egin eztabaidaka. Baina, hil zorian zegoenak entzumena erne, eta ohetik ihardetsi:

— Hara, mutillak, nire abarketak emon egidazuez eta neu joango nauk kanposantura.

Hitzetik hortzerako bizkortasuna denean umoreak bide idekiak ditu. Baina maila hortarako hizkuntzaren erabilerak behar du bizkorra izan.

— Bihar ze egualdi?

— Etzi esango diat.

Baina bada beste era bat, beti gauza guziei txispa atera nahaiarena. Hortarako badira lagunartean edo nonnahi adi egoten direnak, berenkautako gogoetaz filosofia garatuak. Honetan, berriz diot, hizkuntzaren baliapenak asko esan nahi du, maiz hitzen jokoaz baliatzen direlako eta besteetan hitzeri intentzioz balio desberdina emanaz. Adibidez, egunero lanera Plaentziara joaten zen eibartarrarena, zubiko obrak geldiro ari zirelako, edo harremanezko hizketarako gogoaz zuelako, zubiaz ekin zion:

— Zubi hau geldirik zegok.

— Zer ba, Eibarren zubiak ibiliz dabilzak ala?

Mutilak, kontuz plaentziarrekin mintzatzean, baldin alde z aurretik umorerako prest jarri edo adi ez bazaude. Oroi Busca Isusi Plaentziako Allegro Elkartean gastronomiaz mintzatu zeneko hartaz, eta zeuek atera kontuak. Hizlariak gai horietaz zuen etorriaz jan-edanetarik naharo aritu zen. Tartean, Jesukristoren azken afaria ere aipatu omen zuen, eta bukatzeaz galdeak eskatu zituenean, lehen txandan denak isil; baina bigarrenez inork ezer galdetu nahi zuen esateaz, entzuleetako batek:

— Eta zuk aipatu duzun Kristoren afari hori egia ote da oraindik ordaintzeko dagoela?

Hizlaria harriturik, zer erantzun ez zekiela, eta plaentziar beste entzule batek:

— Zelan ordainduko ziten ba, Judasek diruak eraman bazituen?

Hortik aurrerakoa zuk pentsa, irakurle. Baina, egunetara, Busca Isusik egunkariko artikuluan esaten zuen Plaentzian ezin zela serio hitzik egin.

Baina, nere ustez, han serio hitz egiten da. Han egin behar dena da, hitzik serio ez hartu. Bestela, akabo!

Izango dira asmakizunezkoak ere, lagunartean tertulietan broma, jolasa eta abar erabiltzeko asmatzen direnak, maizenik, horietakoak, esajerazioz beteak dira. Batez ere, zakurrari ezurrak eta andriari gezurrak, eredutzat harturik ibiltzen diren ehizarien artean. Nor ehizariak bezalakorik? Baserri inguruan erbiari tira eta huts! Hala ere, harrokeria soinean. Egia aitortu nahi ez eta bertatik hurbil zen baserritarrai:

— Iño! Guti falta izan dek; larri ibili dek; bigarren torian belarri bat kendu zioak.

— Ondo egin diok, zeren ez zuen zertan joan hiru belarrikin.

Baina, normalena den bezala, Plaentziako zuloan bizi direnentzat ere, beren herria bezalako ederrik ez da beste bat munduan. Horregatik, igazko udaran Hondarribian ikusi nuen plaentziar batek Txingudi aldera begira esaten zidan:

— Kointxo, kointxo! Badakit zer pentsatzen nagon? Plaentzia bezain paraje onak badirela munduan.

Beste bati, galtzerdirik gabe zapatak probatzean, zapatariak irri-parrez:

— Horrek amak egindako galtzerdiok ez zaizkik berealakoan apurtuko.

— Etzekiat ba, ze gantzontzilloak ere amak eginak dizkiat baina atzean zuloa ditek.

Eredu horien araberrazkoak izaten dira umorezko ipui laburrak ere. Gertatuak edo asmatuak, denak dira gai farra egiteko. Gainera, garaiko giroari loturik baldin badago, hobe. Franco-ren garaian zabaltzen ziren zurrumurruak ere ondo zetozten:

- Hi, enteratu haiz!
- Zertaz?
- Franco-k kanzerra omen dik.
- A! Kantzer gizajoa.

Lanik ezaz estu dabiltzalarik ere, haien harridura guzia hemen gelditzen da:

— Nork pentsako zian ba inork nahi ez genuena ere faltatuko zenik?

Krisia zerbait arintzeko adarra jotea da onena. Adarra joaz idekitzen dira fabrikako ateak, lanera joateko.

Baina horretan ere guztiak ez datoz bat. Horregatik, ez aipa krisirik, ez izan tristurarik, ez eta ere kolorerik. Zeren, koloreak kolore, umorea ez da dolore.

Umorearen filosofia edo filosofiaren umorea, berdintsu da. Umoreak, berez, erabilgarria izan behar du. Ez pentsa Einsteinek bakarrik erakutsiko digula naturalezako gauzen erlatibitate legea. Adibidez, bada ez daukanak daukanari eman liezaiokenik, eta alderantziz. Hala erakutsi zigun Kaietano zenak: “Zer da, ez duenak, duenari ematen diona?: lotsa”.

Baina, inork, zalantzagatik edo kontradizioaz, eztabaidatu nahi zuenean, orduan Kaietanok, batere haserrerik gabe eta borondaterik hoberenakin arrazoi osoa emango zion, esanaz: “Arrazoa emango diat, ez duenak eman ezin duelako”.

Txistreak euskaraz luzeagoak direla uste duten horiek, nonbait ez dira ohartzen beren ahuleziagatik baizik ez dela, berez direla bareagoak, motelagoak, eta holakoei alperrena gertatzen zaie: marraskillotara (karakoletara) joan, bi ikusi eta batek ihes.

Antologia baterako oharrak.

Euskaraz lehen aldikoz umorea eskaintzen duten testuak XVIII. mendeko bi antzerkiak dira, P. Barrutiaren *Gabonetako ikuskizuna* eta Peñaforida kondearen *El borracho burlado*. Bigarren honek titulu, sarreretako hitzak eta zenbait zati erdaraz izanarren, bere funtsean euskarazko obra da.

Euskara-erdaraz jokatzeko hori nahikoa zabaldua egon da gure artean, batez ere umorea gai nagusitzat hartu denean. Hala ziren joan zen mendearen bukaeretan Donostiako teatro mugimendu haren sortzaile zen Marzelino Soroaren *Azak eta naste o Berzas y versos* (1894-1895) bi liburuxkak. Bere adiskide Serafin Barojak ere bide hori erabili zuen. Gure haurtzaroan jenero horren egile eta merkatari plazarik plaza ezagutu genuen Mendaro Txirristaka, bere bertso bilduma A. Zavalak eskaini zigun 1974an. Horiek aipatzean ahantzi ezinezkoa zaigu Jose Bixente Etxagarai (1773-1855) bere kantaz Donostiako ihauteri konparsak piztu zituen. Era hortako beste elebrey gogoangarri bat Tolosako Ramos Azkarate (1847-1904) izan zen, "Galtzaundiren" egilea.

J.A. Mogelen (1745-1804) *Peru Abarka*-ren lehen parteak ere umorea du Peru eta Maisu Juanen elkarrizketa haietan. Euseo Maria Azkueren bertsoetarik asko umorezkoak dira, bere semeak 1896an *Parnasorako bidea* izenburuz agertu zuen liburuan. Hiz-lauz, Bonifazio Latxaren *Todos erribatekos* (1899) dugu umorerik bizienetakoak; baina finagoa J.B. Elizanburu (1828-1891) poetaren *Piarres Adame* deritzan kontu hura.

Marzelino Soroarena alde batera utzirik, egia esan, 1925. urtera arte ez zen agertu umorezko libururik; umorea huts hutsik zekarrenik. Liburu hori Gregorio Mujikak argitaratu zuen *Pernando Amezketarra* izan zen, Perdandoren heriotzatik ehun eta bigarren urtean. Oroi hezur eta haragizko gizona zela Pernando Amezketarra, Fernando Bengoetxea Altuna (1764-1823), bertsolaria eta gaztaroan Aralarko meategietan lanean ibilia.

Bigarren liburua Pedro Migel Urruzuno (1844-1923), elgoibartarrarena dugu, 1930ean argitaratua hilondoko omenez. Urruzunok, bizi zelarik asko idatzi zuen bere garaiko aldizkarietan, bai bertsoz eta bai prosaz, ipui eta hizkirimiri edo txistez, berebiziko piztasuna ekarriz euskal letretara. Oraintsuago zenbait bilduma agerrarazi ditu A. Zavalak Auspoa Liburutegian.

Egileak bera bizi zelarik argitaratu zuen lehen liburu umoretsua Kirikiñoren *Abarrak* izango da, 1918an Abandon argitaratua (Abando hau gure egunotan Bilbo barrua osatzen duena da, erdaraz Ensanche deitu zaion parte). Handik urte betera Pablo Zamarripa abadeak beste liburu bat *Zaparradak eta zeritzona*, Bilbon bertan. Kirikiñoren liburuan ipui guziak umorezkoak ez badira ere, Zamarriparenak gatz guttiko umorea zekarten, eta gero agertuko zituen beste hirurak ere oso motelak dira.

Geroztik gehituz etorri dira umorezko liburuak. Itzulpenezkoak eta bertso bildumak aparte utzirik eta zenbait huts egiteko arriskoarekin zerrenda eskainiko dugu jenero hau interesatzen zaienentzat. Baina ez aldeztu aurretik aditzera eman gabe umorezko aldizkari bat ere izan zela, triste bukatu zuen umorezko aldizkaria, Parisen Mirande eta Peillenen artean 1962-1964an multikopiaz egina, Hordago Publikapenak 1979an penak kentzeko berargitaratua, baina akdizkarian azalak kendu zituenez aleen zenbaki eta urterik gabe emanak. Horregatik izango dira “publika penak”? Dena dela, *Igela* euskaldun heterodoxoen errebista horrek 7 zenbaki argitaratu zituen.

Aldeztu aurretik huts eginen barkamena eskatuz hara hemen umorezko ipui eta hizkirimiridun liburu zerrenda:

- Gregorio Mujika, *Pernando amezketarra*, Donostia, 1925.
1927an bigarren argitalpena eta gerraostean beste zenbait argitalpen Zarauzko Itxaropenak, hirugarren argitalpenez eta ondoko berargitaratzeak.

- Pedro Miguel Urruzuno, *Ipuiak*, Iruña, 1930. (Hilondoko omenez aldizkarietatik bilduak).
- " " " *Euskalerritik zerura eta beste ipui batzuk*. Tolosa, 1961.
- " " " *Iru ziri* (ipui eta bertso). Tolosa, 1965.
- " " " *Ur-zale baten ipuiak*. Tolosa, 1965.
- Bustintza'tar E. "Kirikiño", *Abarrak*, Abando, 1918.
- " " " *Bigarren Abarrak*, Zornotza-Amorebieta, 1930.
- Pablo Zamarripa, *Zaparradak eta*, Bilbo, 1926.
- " " *Kili-kili*, Bermeo, 1930
- " " *Firi-firi*, Bermeo, 1935
- Yon Etxaide, *Purra! Purra!* (Irri ta par egiñarazteko ipui sailla). Zarautz, 1953.
- " " *Pernando plaentxiatarra*, (Plaentxia-Eibarretan bildutako ipui sorta). Zarautz, 1957.
- Felix Bilbao, *Ipuin-barreka*, Bilbo, 1959.
- Juan San Martin, *Zirikadak* (Ipuin barregarri-dun liburua), Zarautz, 1960.
- " " " *Eztenkadak*. Zarautz, 1965.
- Oskillaso (J. Basterretxea), *Kurloiak*. Zarautz, 1962.
- Bitaño (N. Alzola), *Atalak* (Bertako ipuirik gehientsuenak dira umorezkoak). Zarautz, 1967.
- " " *Bigarren atalak*, Zarautz, 1972.
- " " *Hirugarren atalak*, Bilbo, 1978.
- " " *Ipuinak*. Bilbo, 1978.
- " " *Ipuinak* (II). Bilbo, 1980.
- Iñaki Linazasoro, *H gabe-ko umoria*. Zarautz, 1970.
- Mikel Zarate, *Ipuin Antzeko alegi mingotsak*. Durango, 1975.
- " " *Bilbo irribarrez*. Bilbo, 1980.
- Antton Olariaga, *Zakilixut*. Donostia, 1979.